

Indarkeria Bikarioa



Seme-alabengan egindako indarkeria bikarioa indarkeria matxista mota bat da. Genero indarkeria biktima diren emakumeen seme-alabak, eta baita haien tutoretza, zaintza eta babesa duten adin txikiko haurrak halako indarkeriaren biktimak dira, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babeseko Neurri Integralkoa 2015az geroztik biltzen duen bezala. Halaber, batzuetan amari min egiteko erabiltzen ditu tratu txarren emaileak adin txikikoak. Hau da: indarkeria bikario modu baten aurrean gaude.

016
ATENCIÓN A VÍCTIMAS
DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES



NIPO en línea: 048-21-242-4

Gehiago jakin nahi al duzu?

Zure seme-alabengan indarkeria bikarioaren zeinu batzuk.

- Zure seme-alabak erabiltzen ditu zuri min emateko.
- Haien kintzearekin mehatxu egiten dizu.
- Haien hiltzearekin mehatxu egiten dizu, zuretzat garrantzia gehien duen horretan min emango dizula esaten dizu.
- Zure seme-alabek behar duten tratamendu medikua eteten du berarekin daudenean.
- Seme-alabak bisitetan hartzeko eta uzteko uneetan zu iraindu, mehatxatu edo beheratzen zaitu.
- Gaizki hitz egiten du zutaz eta zure familiaz haien aurrean.

Izan al da aita ona emakume baten aurka indarkeria erabiltzen duen gizonezkoa?

X EZ. Tratu txarrak ematen dituen ezingo da aita ona izan, are gehiago seme-alabak erabiltzen baditu besteari min egiteko.

Zer egin behar dut?



Deitu **016** zenbakira, informazio eta aholkularitza juridiko zerbitzua. Han esango dizute zer egin. Doakoa eta konfidentziala da.



Genero indarkeriaren biktima naiz. Nire seme-alabak arreta psikologiko espezializatua jasotzea nahi dut. Haien aitaren baimena behar al dut?

X EZ. Aldez aurretik jakinarazi beharko diozu, baina ez duzu zertan haren baimenari itxaron.

- 2018az geroztik, zigor epai bat dagoenean eta zigor erantzukizunik deuseztatzen ez denean edo gurasoaren aurka zigor prozedura bati ekin zaionean komunean dituzten seme alabetako baten bizitzaren, integritate fisikoaren, askatasunaren, integritate moralaren edo sexu askatasunaren edo ukigabetasunaren aurka egin duelako edo haren bikoteari edo bikote-ohiari eraso egin diolako, nahikoa izango da:

✓ Emakumearen baimena adin txikiko seme-alaben arretarako eta laguntza psikologikorako.

✓ Aldez aurretik informatu guraso erasotzaileari.

- Aurrekoa berdin aplikatuko da, nahiz eta aurretiazko salaketarik ez egon, emakumea genero indarkerian espezializatutako zerbitzu baten asistentzia jasotzen ari bada, betiere zerbitzu horrek genero indarkeriaren biktima dela baieztatzen duen txosten bat igortzen badu. Laguntza hamasei urte baino gehiagoko seme alabei eman behar bazaie, horien berriazko onespina beharko da.

Gehiago jakin nahi al duzu?

Ikus Kode Zibilaren **156. artikulua** 9/2018 **Errege Dekretua-legearen, abuztuaren 3koa**, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Paktuarena eta **8/2021** legea, ekainaren 2koa, zeinaren bitartez legeria zibila eta prozesala eraldatzen den gaitasun juridikoa erabiltzeko ezintasuna duten pertsonentzako laguntza horien bitartez sartutako eraldaketak egin ostean.

Nire bikotea edo bikote-ohia nire seme-alaben bizitzaren aurka eraso egin duelako zigor prozesu batean dago.

Nahitaez ikusi behar al dute nire seme-alabek haien aita?

X EZ. Oro har, ez da ezarriko bisita edo egonaldi erregimena. Arau orokorra bisitak eta egonaldiak etetea da, eta salbuespena izaten da haiekin jarraitzea.

- Bisiten edo egonaldien erregimen bat balego aurretik, hura etengo da beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, integritate moralaren edo sexu-askatasun eta ukigabetasunaren aurka egitearren abian jarritako auzi prozesuan dagoen gurasoarekiko.

- Halere, epaileak bisita, komunikazio edo egonaldi erregimena ezarri ahal izango du, adin txikikoaren goi interesak eraginda, eta gurasoaren eta seme-alabaren arteko harremanaren egoera ebaluatu ondoren.

Gehiago jakin nahi al duzu?

Kode Zibilaren **94. artikulua** eta Prozedura Kriminalaren Legearen (LECRIM) **544. artikulua**, 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, eta 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurren eta nerabeen indarkeriatik babeste integralkoa onartzean gehitutako eraldaketen ostean.

Nire bikotea edo bikote-ohia auzi-prozedura batean dago, baina epai-agintariek abisatzen dute, testimonio bitartez, genero indarkeriaren zantzu argiak daudela. Nahitaez ikusi behar al dute nire seme-alabek haien aita?

X EZ. Oro har, ez dagokio bisita edo egonaldi erregimena ezartzea: Arau orokorra bisitak eta egonaldiak etetea da, eta salbuespena izaten da haiekin jarraitzea.

Gehiago jakin nahi al duzu?

Ikus Kode Zibilaren **94. artikulua**, 8/2021 legearen, ekainaren 2koa, eta 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa onartu ondorengo aldaketan ostean.